



Ajangizko Udala

AJANGIZKO UDALAK 2009KO EKAINAREN 3AN OSPATUTAKO PREMIAZKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Jabier Berrojalbiz Bidaguren
Angel Luis Uribarri Gondra jauna
Maria Angeles Goikolea Uriarte Andrea
Beñat Erezuma Arisketa
Roman Etxeandia Zabala*

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2009ko ekainaren 3an arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ez ohiko premiazko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

1.- AJANGIZKO HIRI ANTOLAKETARAKO PLAN OROKORRAREN ERREDAKZIO ETA TRAMITAZIO KONTRATUAREN BEHIN BETIKO ELSLEIPENA, BEHAR BADA.-

Espedientearen berri eta Alkatetzak 2009ko maiatzaren 28ko 2009/44 Alkate Dekretuz onartutako behin-behineko esleipena ikusita. Esleitutakoek Administrazio Baldintza partikularren pleguetan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu dutela kontutan hartuta.

Idazkariak 2009ko ekainaren leian egindako txostena irakurrita.

2009 urtean hirigintza plangintzarako tresnak gertutzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 61/2009 Foru Dekretua ikusita.

Batzarreratuek aho batez adosten dute:

Lehenengo.- Lizitazioa ontzat eman eta AJANGIZKO HIRI ANTOLAKETARAKO PLAN OROKORRAREN ERREDAKZIO ETA TRAMITAZIORAKO kontratua M^a Begoña Arbe Acha eta Ula Iruretagoiena Busturia andreei esleitzea, EHUN ETA HOGEITA HAMALAU MILA ZORTZIREHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA HAMALAU ZENTIMO (134.85,14 €) (BEZ barne) euroko prezioan. Exekuzio epea



Ajangizko Udala

Administrazio Baldintza Partikularren pleguko 7. Atalean jasotakoa izango da eta exekuzioa plegu horietan eta aurkeztutako eskaintzak jasotakoan oinarritu beharko da.

Bigarren.- 2009ko udal aurrekontuko 432.60900 partidaren gain 53.942,86 euroko gastua onartzea.

Hirugarren.- Kontratuaren behin-betiko esleipena esleituari jakineraztea eta hamar eguneko epean kontratua administrazio dokumentuan formalizatzeraz etortzeko deialdia zuzentzea.

Laugarren.- 2009 urtean hirigintza plangintzarako tresnak gertutzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 61/2009 Foru Dekretuan oinarrituta, dirualguntza eskatzea.

Bosgarren.- Administrazio bidea ixten duen egintza honen aurka administrazioarekiko Auzi errekurtsua aurkez daiteke administrazioarekiko auzitarako dagokion epaitegian, jakinerazpen hau jaso eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen uztailaren 13ko 4/1999 Legearen 109.c) artikuluekin bat etorritik. Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz zatian adierazitako administrazioarekiko auzo errekurtsuaren aurretik, Berraztertze errekurtsua aurkez diezaioke ebazpena eman duen organuari, hilabeteko epean, jakinerazpen hau jaso eta biharamunetik hasita. Hori guztia aurretik adierazitako urtarrilaren 13ko 4/99 Legearen 116 eta 117 artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki deritzo(e)n egintza edo errekurtsuak aurkezteari uko egin gabe.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da iluntzeko zortzi t´erdiak direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA